ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko urtarrilaren 5a, astelehena • 2 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 712/2025 Foru Agindua, abenduaren 22koa. Aldatzea abenduaren 27ko 761/2011 eta irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduak, 193 eta 289 ereduak onesten dituztenak, hurrenez hurren**

Gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta ahalbidetzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko, aldatzen dira, batetik, abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, 193 eredua onesten duena, hau da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapeko kapital higigarriaren etekin batzuen eta sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena, eta, bestetik, 529/2017 Foru Agindua, irailaren 27koa, 289 eredua onesten duena, hau da, finantza kontuen urteko informazio aitorpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Horrela, Foru Agindu honek erabat integraturik arauztzen du orain arte indarrean dagoen 193 eta 289 ereduen informazio aitorpenei aplikatzekoa zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

**Lehenengo artikulua.** Aldatzea abenduaren 27ko 761/2011 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 193 eredua, bai eta ereduaren ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisikoak eta logikoak ere. Eredu horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapeko kapital higikorraren etekin batzuen eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko establezimendu iraunkorretako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aurkezten da.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 27ko 761/2011 Foru Aginduari:

Bat. “PROBINTZIAREN KODEA” eremuaren eduakia aldatzen da, 77tik 78ra bitarteko posizioak dituena Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (hartzailearen erregistroa, hartzaileen zerrenda), honako eduki honekin:

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUAREN AZALPENA | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 77-78 | Numerikoa | PROBINTZIAREN KODEA<br>hartzailearen egoitza dagoen probintziari edo hiri autonomoari dagozkion bi digituak jarri behar dira; hona kodeen zerrenda: | | | |
| | | ALBACETE | 02 | JAEN | 23 |
| | | ALACANT/ALICANTE | 03 | LEÓN | 24 |
| | | ALMERIA | 04 | LLEIDA | 25 |
| | | ARABA | 01 | LUGO | 27 |
| | | ASTURIAS | 33 | MADRIL | 28 |
| | | AVILA | 05 | MALAGA | 29 |
| | | BADAJOZ | 06 | MELILLA | 52 |
| | | BARTZELONA | 08 | MURTZIA | 30 |
| | | BIZKAIA | 48 | NAFARROA | 31 |
| | | BURGOS | 09 | OURENSE | 32 |
| | | CACERES | 10 | PALENCIA | 34 |
| | | CADIZ | 11 | LAS PALMAS | 35 |
| | | KANTABRIA | 39 | PONTEVEDRA | 36 |
| | | CASTELLÓ / CASTELLÓN | 12 | ERRIOXA | 26 |
| | | CEUTA | 51 | SALAMANCA | 37 |
| | | CIUDAD REAL | 13 | S. C. TENERIFEKOA | 38 |
| | | KORDOBA | 14 | SEGOVIA | 40 |
| | | A CORUÑA | 15 | SEVILLA | 41 |
| | | CUENCA | 16 | SORIA | 42 |
| | | GIPUZKOA | 20 | TARRAGONA | 43 |
| | | GIRONA | 17 | TERUEL | 44 |
| | | GRANADA | 18 | TOLEDO | 45 |
| | | GUADALAJARA | 19 | VALENTZIA | 46 |
| | | HUELVA | 21 | VALLADOLID | 47 |
| | | HUESCA | 22 | ZAMORA | 49 |
| | | BALEAR UHARTEAK | 07 | ZARAGOZA | 50 |

Bi. "KODEAREN GAKOA" eremuaren edukia aldatzen da, 79 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (hartzailearen erregistroa, hartzaileen zerrenda), honako eduki honekin:

| POSIZIOA | IZAERA | EREMUAREN AZALPENA | |
|---|---|---|---|
| 79 | Numerikoa | KODEAREN GAKOA<br>"A", "B" edo "D" hartukizunen gakoetarako baino ez.<br>"JAULKITZAILE-KODEA" eremuaren edukia identifikatzen du, eta, hala badagokio, "ISIN KODEA".<br>Orokorrean, 4 gakoa jarri behar da, salbu eta baloreek ISIN esleituta ez badute edo jaulkitzaileak IFZ esleituta ez badauka.<br>Eremu honetan ondoren adierazten diren zenbakietatik edozein adieraziko da, "JAULKITZAILEAREN KODEA" eremuaren edukia identifikatzeko. | |
| | | 1 | Jaulkitzaile kodea IFZ bat da. |
| | | 2 | Jaulkitzailearen kodea ISIN kode bati dagokio. |
| | | 3 | Jaulkitzailearen kodea ISIN esleituta ez duten atzerriko baloreei dagokie. |
| | | 4 | Identifikazioa "ISIN KODEA"ren bidez (193-204 posizioak) eta jaulkitzailearen IFZren bidez (80-91 posizioak) egiten da. |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hiru. “JAULKITZAILE-KODEA” eremuaren edukia aldatzen da, 80tik 91era bitarteko posizioak dituena, Foru Aginduaren II.eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (hartzailearen erregistroa, hartzaileen zerrenda), honako eduki honekin:

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUAREN AZALPENA |
|---|---|---|
| 80-91 | Alfanumerikoa | JAULKITZAILE-KODEA<br>“A”, “B” edo “D” hartukizunen gakoetarako baino ez.<br>Eremu hau jaulkitzailea identifikatzeko beteko da.<br>Hauek jaso behar dira: |
| | | 1) “KODEAREN GAKOA” eremuak (79 posizioa) 1 balioa badu, zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. |
| | | 2) “KODEAREN GAKOA” eremuak (79 posizioa) 2 balioa badu, eremu honek ez du edukirik izango, eta “ISIN KODEA” eremua bete beharko da (193-204 posizioak). |
| | | 3) “KODEAREN GAKOA” eremuak (79 posizioa) 4 balioa badu, zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. ISIN kodeari dagokion identifikazioa “ISIN KODEA” eremuan bete behar da (193-204 posizioak). |
| | | 4) “KODEAREN GAKOA” eremuak (79 posizioa) 3 balioa badu, (finantza aktiboak eta beste balio higikor batzuk, IFZrik edo ISIN koderik gabe), “ZXX” gakoa adieraziko da, non “XX” herrialde jaulkitzailearen kodea den, indarrean dagoen herrialdeen kodifikazioaren arabera. |

Lau. “ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA” eremuaren edukia aldatzen da, 152tik 164ra bitarteko posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (hartzailearen erregistroa, hartzaileen zerrenda), honako eduki honekin:

<table>
<tr><th>POSIZIOAK</th><th>IZAERA</th><th colspan="2">EREMUAREN AZALPENA</th></tr>
<tr><td rowspan="6">152-164</td><td rowspan="6">Numerikoa</td><td colspan="2">ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA<br>Zenbakizko eremua, 13 kokalekukoa.<br>“HARTUKIZUNEN ZENBATEKOA” eremuan jarritako kopuruari “PFEZan SARTZEKOAK EZ DIREN ZENBATEKOAK” eremuan jarritakoa kenduta geratzen den kopurua adierazi behar da. “PFEZan SARTZEKOAK EZ DIREN ZENBATEKOAK” eremuan jarritako kopurua zero bada, edo hartzailea Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergaduna bada, “HARTUKIZUNEN ZENBATEKOA” eremuko zenbatekoa “ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA” eremuko zenbateko bera izan behar da. Gauzazko ordainsarien kasuan (kasu horretan, “HARTUKIZUN MOTA” laukian 2 jarri beharko da), ordaintzailearentzako eskuraketa balioari edo kostuari 100eko 20 gehitzearen emaitza jarri behar da.<br>Hala ere, eredu honen barruan hiri higiezinen azpierrentamenduei aplikatu beharreko atxikipenen kasuan (hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren Zergaren zergaduna), atxikipenaren oinarrian errentatzaileak jasotzen dituen kontzeptu guztiak sartu behar dira, Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan ezik.<br>Kapital higikorraren errenten edo etekinen kasuan, hartukizun gakoa “C” bada eta “IZAERA” gakoa 01, 02, 03, 04 edo 06 bada eta, gainera, hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, atxikipenaren oinarria ordaindutako sarreren guztirako kopurua izango da.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gainera, hartukizun gakoaren “C” letraren “IZAERA” gakoaren 05 zenbakiak adierazten dituen biziarteko edo aldi baterako errenten kasuan, hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, atxikipenaren oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarrian integratu beharreko kopurua izango da (hau 33/2013 Foru Arauaren arabera kalkulatu behar da).</td></tr>
<tr><td colspan="2">Hala ere, baldin eta baloreak mailegatzeko eragiketak egin badira, hau da, “KODE MOTA” eremuan (2 motako erregistroko 96. kokalekua) “P” jarri bada), eremu honetan hauen batura jarri behar da: “HARTUKIZUNEN ZENBATEKOA / MAILEGU-EMAILEAREN ORDAINSARIA” (2 motako erregistroko 123-135 kokalekuak) eremuko zenbatekoa eta “KONPENTSAZIOAK” eremuan (2 motako erregistroko 225-236 kokalekuak) adierazten diren atxikipena aplikatu beharreko konpentsazioen zenbatekoa.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Eremu honek bi atal ditu:</td></tr>
<tr><td>152-162</td><td>Atxikipenen eta konturako sarreren oinarriaren zati osoa. Edukirik ez badu zeroak jarri behar dira.</td></tr>
<tr><td>163-164</td><td>Atxikipenen eta konturako sarreren oinarriaren zati hamartarra. Edukirik ez badu zeroak jarri behar dira.</td></tr>
</table>



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bost. “ISIN KODEA” erema gehitzen da, 193tik 204ra bitarteko posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 193 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (hartzailearen erregistroa, hartzaileen zerrenda), honako eduki honekin; aldi berean “ZURIUNEAK” eremuaren posizioak eguneratzen dira:

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUAREN AZALPENA |
|---|---|---|
| 193-204 | Alfanumerikoa | ISIN KODEA<br>“KODEAREN GAKOA” eremuak 2 edo 4 balioak baditu bakarrik (79 posizioa).<br>ISIN idatzi beharko da nahitaez, baldin eta “HARTUKIZUNAREN GAKOA” eremua (92 posizioa) = “A” eta “MERKATU GAKOA” eremua (339 posizioa) = “A” bada.<br>Esleitutako ISIN kodea adieraziko da, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baloreei eta beste finantza tresna kodifikagarriei eta kodifikatzeko prozedurei buruzko uztailaren 28ko 2/2010 Zirkularrari jarraituz egon beharko da eratuta. |
| 205-207 | — | ZURIUNEAK |

Sei. “AITORTZAILEAREN IZAERA” eremuaren eduakia aldatzen da, 208 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (hartzailearen erregistroa, hartzaileen zerrenda), honako eduki honekin:

| POSIZIOA | IZAERA | EREMUAREN AZALPENA |
|---|---|---|
| 208 | Alfabetikoa | AITORTZAILEAREN IZAERA<br>“S” jarriko da aitortzailea kategoria hauetakoren batean ez dagoenean:<br>a) Aitortzailea Espainian helbidea, egoitza edo ordezkaritza duen erakundea da, atxikipena aplikatu beharreko eredu honetako errentak besteren kontura ordaintzen dituena edo kapital higikorraren etekinak edo eredu honetako errentak sortzen dituzten balore errenten kobrantzaren gordailuak zaintzen edo kudeatzen dituena.<br>b) Aitortzailea kapital higikorraren etekinak edo eredu honetako errentak sortzen dituzten baloreen jaulkitzailea da, beti ere errenta horiek inoren kontura ordaintzekoak direnean edo baloreak titularrek jaulkita daudenean edo errenten kobrantza aurreko a) letran aipatzen diren entitateek kudeatzen dituztenean.<br>c) Aitortzaileak ordaindu egin ditu hamabi hilabetetik gorako likidazio maiztasuna izateagatik 1999koa baino lehenagoko ekitaldietan konturako sarrerak eragin dituzten kapital higikorraren etekinak edo errentak, eta urteko laburpenaren ekitaldian behin betiko atxikipenak eta abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Arautegiaren bigarren xedapen iragankorreko 2. idatz zatian aipatutako erregularizazioa egin ditu.<br>d) Aitortzaileak jaso egin ditu administrazio gastuei eta balore negoziagarriei dagozkien zenbatekoak; beraz, eredu honetan jasotako gastuen zerrendako eranskina bete behar du.<br>Aitortzailea aipatu berri diren kategorietakoren batean egonez gero, eremu hau zuriunez beteko da.<br>Eremu honetan “S” jartzen bada, ondoren adieraziko diren eremuak honela beteko dira:<br>HARTZAILE BITARTEKARIA (76. kokalekua): zuriunez adieraziko da.<br>KODEAREN GAKOA (79. kokalekua): zeroz adieraziko da.<br>JAULKITZAILEAREN KODEA (80-91 kokalekuak): zuriunez adieraziko da.<br>ORDAINKETA (95. kokalekua): zeroz adieraziko da.<br>KODE MOTA (96 kokalekua): zuriunez adieraziko da.<br>BALORE KONTUAREN KODEA / MAILEGUAREN ERAGIKETA ZK. (97-116 kokalekuak): zuriunez adieraziko dira.<br>PENALIZAZIOAK (182-192 kokalekuak): zeroz adieraziko dira<br>ISIN KODEA (193-204 kokalekuak): zuriunez adieraziko da.<br>GASTUEN ZENBATEKOA (195-207 kokalekuak): zeroz adieraziko dira.<br>MAILEGUAREN HASIERA EGUNA (209-216 kokalekuak): zeroz adieraziko da.<br>MAILEGUAREN EPEMUGA (217-224 kokalekuak): zeroz adieraziko dira.<br>KONPENTSAZIOAK (225-236 kokalekuak): zeroz adieraziko dira.<br>BERMEAK (237-248 kokalekuak): zeroz adieraziko dira. |

**Bigarren artikulua.** Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, onesten duena 289 eredua finantza kontuen urteko informazio aitorpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio irailaren 27ko 529/2017 Foru Aginduari:

Bat. Aldatzen da I. eranskina-Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitorpena (289 eredua) aurkeztu behar duten.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| “OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*) | | OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (*) |
|---|---|---|
| EB | EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK | AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK |
| 2025 ETA HURRENGOAK | 2025 ETA HURRENGOAK | 2025 ETA HURRENGOAK |
| Alemania | Liechtenstein | Albania |
| Austria | San Marino | Antigua y Barbuda |
| Belgika | Andorra | Saudi Arabia |
| Bulgaria | Monako | Argentina |
| Zipre | Suitza | Armenia |
| Kroazia | | Aruba (Herbehereak) |
| Danimarka (**) | | Australia |
| Eslovenia | | Azerbaijan |
| Estonia | | Barbados |
| Finlandia | | Belize |
| Frantzia (**) | | Bonaire (Herbehereak) |
| Grezia | | Brasil |
| Hungaria | | Brunei Darussalam |
| Irlanda | | Kamerun |
| Italia | | Kanada |
| Letonia | | Txile |
| Lituania | | Txina |
| Luxemburgo | | Kolonbia |
| Malta | | Korea |
| Herbehereak (**) | | Costa Rica |
| Polonia | | Curasao (Herbehereak) |
| Portugal | | Dominika |
| Txekiar Errepublika | | Ekuador |
| Eslovakiar Errepublika | | Georgia |
| Errumanía | | Ghana |
| Suedia | | Gibraltar (Erresuma Batuan) (***) |
| | | Granada |
| | | Groenlandia (Danimarka) |
| | | Guernsey (Erresuma Batuan) |
| | | Hong Kong |
| | | India |
| | | Indonesia |
| | | Islandia |
| | | Cook uharteak (Zeelanda Berria) |
| | | Man uhartea (Erresuma Batuan) |
| | | Feroe uhartea (Danimarka) |
| | | Israel |
| | | Jamaika |
| | | Japonia |
| | | Jersey (Erresuma Batuan) |
| | | Kazakhstan |
| | | Kenia |
| | | Libano |
| | | Macao (China) |
| | | Malasia |
| | | Maldivak |
| | | Maroko |

| “OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A) LETRA (*) | | OTSAILAREN 21EKO 6/2017 FORU DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN A), B) ETA C) LETRAK (*) |
|---|---|---|
| EB | EB AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK | AMACEK ONDORIOAK IZANGO DITUEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO AKORDIOA DUTEN HERRIALDEAK |
| 2025 ETA HURRENGOAK | 2025 ETA HURRENGOAK | 2025 ETA HURRENGOAK |
| | | Maurizio |
| | | Mexico |
| | | Moldavia |
| | | Montenegro |
| | | Montserrat |
| | | Nigeria |
| | | Niue |
| | | Norvegia |
| | | Kaledonia Berria (Frantzia) |
| | | Zeelanda Berria |
| | | Oman |
| | | Pakistan |
| | | Panama |
| | | Peru |
| | | Erresuma Batua |
| | | Ruanda |
| | | Errusia |
| | | Saba (Herbehereak) |
| | | Samoa |
| | | Saint Kitts eta Nevis |
| | | San Eustakio (Herbehereak) |
| | | San Martin (Herbehereak) |
| | | Saint Vincent eta Grenadinak |
| | | Santa Luzía |
| | | Senegal |
| | | Seychelleak |
| | | Singapur |
| | | Hegoafrika |
| | | Thailandia |
| | | Trinidad eta Tobago |
| | | Tunisia |
| | | Turkia |
| | | Ukrania |
| | | Uganda |
| | | Uruguay |
| | | Vanuatu |

(*) Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haiei buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.

(**) AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabean agertzen diren lurraldeak izan ezik [Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluaren b) eta c) letrak].

(***) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibraltar-i buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bi. Aldatzen da II. eranskina- Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeharra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 apartatuan aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzailetzat» jotzen direnena.

| PARTE HARTZEN DUTEN JURISDIKZIOEN ZERRENDA | | |
|---|---|---|
| Albania | Grecia | Niue |
| Alemania | Groenlandia (Danimarka) | Norvegia |
| Andorra | Guernsey (Erresuma Batua) | Kaledonia Berria (Frantzia) |
| Aingira (Erresuma Batua) | Hong Kong | Zeelanda Berria |
| Antigua y Barbuda | Hungaria | Oman |
| Saudi Arabia | India | Herbehereak |
| Argentina | Indonesia | Pakistan |
| Armenia | Irlanda | Panama |
| Aruba (Herbehereak) | Man uharteak (Erresuma Batua) | Peru |
| Australia | Islandia | Polonia |
| Austria | Caiman uharteak (Erresuma Batua) | Portugal |
| Azerbaijan | Cook uharteak (Zeelanda Berria) | Qatar |
| Bahamak | Feroe uhartea (Danimarka) | Erresuma Batua |
| Bahrain | Marshall uharteak | Txekiar Errepublika |
| Barbados | Turk eta Caico uharteak (Erresuma Batua) | Eslovakiar Errepublika |
| Belgika | Birjina uharte britainiarrak (E. Batua) | Ruanda |
| Belize | Israel | Errumania |
| Bermuda (Erresuma Batua) | Italia | Errusia |
| Brazil | Jamakca | Samoa |
| Brunei Darussalam | Japonia | Saint Kitts eta Nevis |
| Bulgaria | Jersey (Erresuma Batua) | San Marino |
| Kanada | Kazakhstan | San Martin (Herbehereak) |
| Kamerun | Kenia | Saint Vincent eta Grenadinak |
| Txile | Kuwait | Santa Luzía |
| Txina | Letonia | Senegal |
| Zipre | Libano | Seychellak |
| Colombia | Liberia | Singapur |
| Korea | Liechtenstein | Hegoafrika |
| Costa Rica | Lituania | Suedia |
| Kroazia | Luxemburgo | Suitza |
| Curasao (Herbehereak) | Macao (Txina) | Thailandia |
| Danimarka | Malaysia | Trinidad eta Tobago |
| Dominica | Maldivak | Tunisia |
| Ekuador | Malta | Turkia |
| Arabiar Emirerri Batuak | Maroco | Ukrania |
| Eslovenia | Maurizio | Uganda |
| Estonia | Mexico | Uruguay |
| Finlandia | Moldavia | Vanuatu |
| Frantzia | Monaco | |
| Georgia | Montenegro | |
| Ghana | Montserrat (Erresuma Batua) | |
| Gibraltar (Erresuma Batua) (*) | Nauru | |
| Granada | Nigeria | |

(*) Nazioarteko Akordioa, fiskalitateari eta finantza interesen babesari buruzkoa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuaren artekoa, Gibraltar-i buruzkoa, Madrilen eta Londresen ad referendum egina 2019ko martxoaren 4an.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Azken xedapena

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2025. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 22a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*

*Ogasun zuzendaria*
*MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.01.05 07:55:46 Z